

AITA MENNI - TAFYD PROIEKTUA

Garuneko kalte hartua eta bizitza kalitatea



Ikasketa esanguratsuak testuinguru errealetan

Proiektuaren abiapuntua



- Gure ikasleen formakuntzaren faseak 2 ikasturtetan:
 - Ezagupenak + esperientziak **x jarrerak**
 - Irakasle-monitorearen rolean jartzen ditugu ikasleak jarduera fisikoen aplikazioan, konpententzia desberdinak garatzeko
- FCT (praktikaldian) betetzen dute bereziki arlo hau
- Klaseetan simulaziotik Kasu errealetara pausua emateko beharra; Aitameni Ospitalarekin elkarlana

Kasua

Aitameni ospitalak badauka gune bat Arrasateko Otalora lizentziaduna kalean. Bertan “ Garuneko kalte hartua” daukaten gaixo edo bezeroak egoten dira egunero beraien gaitzari aurre egin ahal izateko lanetan.

Zentro honetan tratamendu eta errehabilitazio lanak burutzen dituzte Aitameniko psikologo, sendagile eta fisioterapeuten esanetara.

Adorea ez zaie falta, bizitzan aurrera egiteko gogoia ere ez,..... Baina egunerokotasuna eta rutinak janda, esperientzia berriak estimulu bilakatzeko beharra ikusten dute.

Honetarako gure laguntza behar dute, guk daukagun Jarduera Fisikoen esperientzia, beraientzat aberatsgarri izan daiteelakoan.

Pertsona hauentzat aisialdi aktiborako kirol programa espezifikoa bat garatzea izango litzateke momentu honetan aurrean jartzen zaigun erronka.

Ea ba!!!!!!

Helburu eta Konpetentziak

Helburuak:

- **Gorputz eta aktibitate fisikoen sustapena heziketa zikloko ikasleek garuneko kalte hartua gaiarekin familiarizatzea eta formakuntza jasotzea. Baita disgaitasuna, oztopo arkitektonikoak eta laguntzarako produktoak ezagutzea ere.**
- **Ikasleengan enpatiazko, berdintasunezko eta harremanak errespetutsuak lantzea, pertsona disgatua izan edo ez.**
- **Aita Menniko eguneko zentroan dauden pertsonen egunerokotasuna (errehabilitazioa, jarduerak ...) ezagutzea eta beraiekin harremana izatea.**
- **Aita Menniko eguneko zentroan dauden pertsonekin jarduera fisikoa egitea, aisialdi aktiboago bat izateko aukerak zabalduz.**
- **Ikaskuntza zerbitzua metodologiaren bitartez, Arizmendi ikastolako ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesua esanguratsuagoa izatea.**

Helburu eta Konpetentziak

Landu eta garatutako *konpetentziak*:

- Garuneko kalte hartua duten pertsonei egokitutako **saioen programazioa, diseinua eta gauzapena**, aurretik ezarritako helburuak eta dinamika errespetatuz.
- Programatu eta diseinatutako **jardueren gidatze eta dinamizazioa**.
- Koletibo zehatz honekin egin behar duten **ezagutzaren transferentzia modu esanguratsuan** egitea, garuneko kalte hartua duten pertsonek bizipena bihurtzeko, euren bizi-ohiturak alda ditzaten bidean jarritz.
- Oinarrizko konpetentziak lantzea: **komunikazioa, talde lana, empatia eta kolaborazioa**



Ikasgaiekin loturak

Proiektu hau Interdisziplinari bezela ulertzen dugu, Heziketa zikloko ikasgai desberdinak integratzen dituen alegia.

- **Kirol Egokitua** izango da Ikasgai nagusia eta proiektuaren muina
 - Gaiaren kontextualizazioa, sentsibilizazioa,...
 - Irakaslea
 - Ordu-tegiak
 - Ebaluazioa
- Bakarkako kirolak; **TRX eta Igeriketa** ikasgaiek ikasleari baliabide anitz eskeinitako jarduerak praktikan jarri ahal izateko
 - Jardueren diseinua, ariketak, ...
- **Talde dinamika** ikasgaian, pertsonekin lan egiterakoan behar izango ditugun konpetentziak ikusten dira; komunikazioa, gatazken kudeaketa, talde lana eta motibazioa

Sekuentzia didaktikoaren faseak

Sarrera fasea

Fase honetan, ikasleekin proiektuaren ardatzak (aurrez Aitamendi ospitalarekin hainbat bileratan adostuak) elkarbanatuko dira.

Sekuentziaren xedea eta helburuak zeintzuk izango diren azalduko dira eta ikasleek izan dezaketen proposamenak aintzat hartuko dira.

Garuneko kalte hartua duten eta Aita Menni ospitalearen nondik norakoak ezagutzeko eta proiektua hobeto kokatzeko ordu t´erdiko formazioa jasoko dute ikasleek. Horretarako, Aita Menni ospitaleko Iñigo Urrutikoetxea neuropsikologoa etorriko da eta **INTRODUCCIÓN AL DAÑO CEREBRAL** hitzaldia emango du.



Sekuentzia didaktikoaren faseak

Garapen fasea

Behin proiektuaren ardatzak ezagututa eta ikasleen ekarpenak jasota, beharrezko ezagutzak eraikitzeko tailer ezberdinak antolatuko dira. Guzti hauek, beraien ezagutzak aberasteko eta azken ekoizpena lortzeko behar beharrezkoak izango dira.

LEHENENGO TAILERRA

Alteraciones motoras en personas con DCA. Garuneko kalte hartua duten pertsonentzako jarduera fisiko egokitua planifikatzeko, beharrezkoa da beraien ezaugarri eta gaitasunak ondo ezagutzea. Hortaz, Aita Menni zentruan lanean diharduen Ibone Barrena fisioterapeuta etorriko da **hitzaldia** ematera

BIGARREN TAILERRA

Zer jarduera fisiko proposatu ditzakegu garuneko kalte hartua duten pertsonekin lantzeko? *Gorputz eta jarduera fisikoen sustapena (TAFYD)* heziketa zikloan emandako materia ezberdinak kontutan hartuko dira eta landu diren jarduera fisikoetatik egokienak ikusten direnak hautatu eta justifikatu beharko dituzte ikasleek.

Sekuentzia didaktikoaren faseak

HIRUGARREN TAILERRA

Lan taldeak sortuko dira gaiaren interesen arabera eta proposamen didaktikoak diseinatu beharko dituzte ikasleek. Talde bakoitzak, garuneko kalte hartua duten pertsonen gaitasun motoreak kontutan hartuta 3 saioz osatutako sekuentzia bat diseinatu beharko du.

LAUGARREN TAILERRA

Aita Menniko eguneko zentroa ezagutzen. Tailer honen bitartez, garuneko kalte hartua duten pertsonak egoten diren eguneko zentroa ezagutuko dute. Beraiek egunerokotasunean egiten dituzten jarduerak ezagutu eta erabiltzen dituzten makinaria eta material ezberdinak aztertuko dituzte. Horretaz gain, ikasleek, beraien saioak aurrera eramango dituzten pertsonak ezagutuko dituzte, beraien gaitasun eta mugak identifikatzeko aukera izango dutelarik.



Sekuentzia didaktikoaren faseak

Ikasle taldea, beraien **proposamena gauzatzen** hasiko da. Batzuk igeriketa egokituko saioak emango dituzte, beste batzuk TRX egokituko saioak eta azkenik beste talde batek boccia saioak prestatuko dituzte.



Azken ekoizpena

Azken ekoizpena bi atal ezberdinetan banatuko da:

Alde batetik, ikasle talde bakoitzak egindako lanketaren proiektua aurkeztu beharko du. Puntu guztiak aintzat hartuta, txostena osatu beharko dute.

Bestalde, egindako elkarlanari amaiera emateko BOCCIA txapelketa bat antolatuko dugu Aita Menni elkartekoekin eta GSR zaharren egoitzako kideekin batera.

Sekuentzia didaktikoaren faseak

Balorazio fasea

Egindakoaren eta ikasitakoaren inguruko hausnarketa eta balorazioa egingo du ikasleak. Ondo ateratakoak edo indarguneak kontutan hartuko dira; baita ahulguneak edo hobetzekoak ere. Hausnarketa honetatik ateratako ondorioekin azken ekoizpeneko balorazioa egingo da.



Antolaketa; denboralizazioa

- o Gure ikasle guztiak hiru taldetan banatuko ditugu eta talde bakoitza jarduera fisiko baten arduraduna izango da. Honetarako Olatz Manuel eta Xabin Arriola irakasleen laguntza dute.
- o 1. Jarduera fisikoa; **IGERIKETA** izango da eta gure ikasle taldeak (8 bat ikasle), igerilekura gerturatuko dira zentroko erabiltzaileekin saioak egitera. 3 saio aurreikusten dira, Ibane Barrena (fisioterapeuta), Fran Pinilla (monitorea)-ren laguntzaz:
 - § Azaroak 26.
 - § Abenduak 1
 - § Abenduak 10
- o 2. Jarduera fisikoa **TRX** izango da eta gure ikasle taldeak (8 bat ikasle), Ferixalekuko gimnasioan TRX saioak eramango dituzte aurrera. 3 saio aurreikusten dira, Ibane Barrena (fisioterapeuta), Fran Pinilla (monitorea)-ren laguntzaz:
 - § Abenduak 15
 - § Abenduak 17
 - § Urtarrilak 8
- o 3. Jarduera fisikoa; **BOCCIA** izango da eta gure ikasle taldeak (8 bat ikasle). GSRko erabiltzaile eta Aita menniko erabiltzaileen arteko txapelketa antolatu eta aurrera eraman beharko dute, Ibane Barrena (fisioterapeuta), Fran Pinilla (monitorea) eta beste monitorea-ren laguntzaz:
 - § Urtarrilak 12
 - § Urtarrilak 19
 - § Urtarrilak 22; BOCCIA TXAPELEKTA

Antolaketa; baliabideak

Giza baliabideak:

Aita Menniko eguneko zentroko koordinatzailea: Olatz Uriarte

Aita Menni zentruko Ibane Barrena, fisioterapeuta

Aita Menniko Iñigo Urrutikoetxea neuropsikologoa

Fran Pinilla, monitorea.

Arizmendi ikastolako Tafyd heziketa zikloko irakasle bat, proiektuaren arduraduna: Olatz Manuel Ezenarro, IVEF lizenziatua

Arizmendi ikastolako TAFYDeko 2.mailako 25 ikasle

Material baliabideak:

Gurpildun aulkiak

TRX eko materiala

Bocciako pilotak

Igeriketarako material espezifiko eta anitza; txurroak, busti daitezkeen gurpildun aulkiak, tablak...

Esterillak

Ebaluazio irizpideak

Ikaste emaitzak eta ebaluazio irizpideak:

1. Garuneko kalte hartua duten pertsonen ezaugarriak kontutan hartuz, **saio ezberdinez osatutako sekuentzia progresibo bat egiteko gai da.**

Hiru saioz osatutako sekuentzia bat egin da.

Saioetan erabiltzaileen gaitasun eta mugak kontutan hartu dira.

Oinarrizko jardueren kontrol posturala kontutan hartu da.

Beharrezkoak diren egokitzapenak aztertu dira.

Jarduera bakoitzaren aldagaiak identifikatu dira.

2. Taldearen ezaugarriak kontutan hartuz eta eskuragarri dauden giza baliabide eta material baliabideak kontuan hartuz, **jarduerak antolatzekeo gai da.**

Planifikatu diren jarduerak egingarriak eta errealitatera eramateko modukoak dira.

Kontuan izan dira eskuragarri dauden baliabideak eta hauei probetxuzko erabilera eman zaie

3. Partehartzaileekin **komunikatzeko beharrezkoak diren estrategia eta teknikak erabiltzen ditu.**

Erabiltzaileekin gertutasuna adierazi da.

Partehartzaileak ulertzeko eta beraien beharrak asetzeko ahalegina egin da.

Inteligentzia emozionalaren printzipioak kontutan hartu dira partehartzaileekin komunikatzerako orduan.

4. Partehartzaileen gaitasun eta egoera fisikoa kontutan hartzen du eta **jardueren intentsitate eta egokitzapen egokiak aplikatzen ditu.**

Planifikatutako jarduerak ebaluatu ditu.

Planifikatutako jarduerak ebaluatu ostean, proposamen berriak egin ditu

5. Saioan zehar ematen dituen **azalpenak argiak dira.**

Saioaren dinamizazioan rol aktiboa eta arduratsua hartu da.

Taldean giro atsegina egoteko beharrezko estrategiak erabili dira.

Proiektuaren balorazioa

Arizmendi ikastolako irakaslearen partetik:

Ikaskuntza esanguratsua eman da, teorian ikasitakoa praktika errealetan frogatzeko eta ikertzeko aukera izan dutelarik ikasleek. Ikasleak motibatuta egon dira, ikaste prozesu aktiboa izan dutelarik. Saio batzuk ikasturteko orduetatik kanpo eman behar izan dira, hortaz hurrengo urterako denboralizazioa hobetzea komenigarria da.

Aita Menniko fisioterapeuta eta koordinatzailearen partetik:

Oso esperientzia aberasgarriak izan da. Erabiltzaileak oso gustura egon dira, errepikatzeko irrikaz geratu dira. Proposatutako jarduerak egokiak izan dira. Hurrengo ikasturtera begira, gehiago sartu daitezke.

Ikasleen azken ekoizpeneko txostenetik ateratako balorazioak;

Oso gustura aritu dira.
TAFYDen egindako lanketarik esanguratsuenetakoa iruditu zaie.
Oso garrantzitsua da errealitatea ezagutzea.
Errepikatu behar dela uste dute.

Proiektuaren balorazioa



ESKERRIK ASKO!!!

